

*Irakaslea: Nekane Artauz*

*María Inmaculada Ikastetxea*

*Lehen Hezkuntza (Fisio)*

*Ideia-izena: “Espezieen galera”*

## **“KOSMODISEA OSO INTERESGARRIA DA: TALDE LANEAN ARITU BEHAR DA GAURKOTASUNeko GAI BATI BURUZ”**

“*Animalien galera*” Lehen Hezkuntzako bigarren etapan irabazle ateratako gaia da, Zarauzko Maria Inmaculada Ikastetxeak proposatuta, eta animalien bizia hobetzeko askotariko aukerak adierazten ditu, ehiza kontrolatuz, itsas baliabideak babestuz eta maskotak zainduz.

Nekane Artauz 26 ikaslekin osatutako “inmakulada5” taldearen arduraduna da eta, adierazi duenez, “*parte hartzea erabaki genuen batez ere Kosmodiseak bi aukera oso interesgarri eskaintzen dizkigulako: alde batetik, teknologia berriak erabiltzea eta, bestetik, gaurkotasuneko gai interesgarri bat aztertzea. Hori guztia, gainera, talde-lanean oinarrituta eta erabakiak guztion artean hartuta*”.



- Nola hautatu zenuten aurkeztu duzuen ideia?

- *Ingurumenari buruzko hainbat gai proposatu genituen eta, gero, guztion artean, hiru aukeratu genituen, eta "Espezieen galera" hautatu genuen.*

- Laburbilduz, zertan datza aurkeztu duzuen ideia?

- *Idea hau aurkeztu dugu batez ere azken urteotan espezie asko galtzen ari direlako, era naturalean galduko ziren baino gehiago. Biztanleria gehitzea, natur baliabideen gehiegizko ustiapena, ingurumen-aldaketak eta abar izan daitezke arazo horren arrazoiak.*

- Zuen iritziz, zer da Kosmodiseako proposamenaren interesgarriena?

- *Oso proposamen interesgarria iruditzen zaigu: talde-lanean aritu behar da. Beste gauza oso on bat da talde-lan horietan besteen iritzia kontuan hartzen ikastea. Hori guztia, gainera, teknologia berriak erabiliz.*

